

IDENTIFIKATUTAKO KOLEKTIBOIA
JARDUERA ESPERO BAINO BAXUAGOA BADA ORDAINKETA
EGOKITZEKO AURREIKUSITAKO NEURRIAK.

Jarduera espero baino baxuagoa den kasuetan, bereziki identifikatutako kolektiboaren barruan eta orokorrean erakunde osoan, ordainketan baxura egindako egokitzapen bat ekar dezaketen ondorio ugari eman daitezke. Hierarkian nagusi denak jardueraren urteko ebaluazioa egiteko araututako barne prozedura bat existitzen da, ordainketa finkoan zein aldagarrian eragina duena. Erakundeak antolakundearen lanpostu guztientzat urtero ofizioz martxan jartzen duen ebaluazio honi kalterik egin gabe, bat-bateko egoeren edo antolaketa beharren aurrean beste ad hoc prozedura batzuk eman daitezke. Egoera hauek emaitzen ebaluazio exantea estaltzen dute. Horien maiztasuna, orokorrean, urtekoa da. Hala ere, eta bereziki identifikatutako kolektiboari dagokionez, kasuaren arabera emaitzen expost ebaluazio bat existitzen da ere, Erakundearen edo unitatearen emaitzak barne hartzeaz gain zuzendariak banaka egindako kudeaketarena ere barne hartzen duena.

1.- Ebaluazio exantea.

Ordainketa finkoaren gaineko efektuak.

- Garapen sistema ezberdinak existitzen dira, batzuk plantila guztiarentzat, enpresaren hitzarmen kolektiboan aurreikusitakoak, eta beste batzuk zuzendariarentzat berariaz eginak. Kasu gehienetan, ordainsari finkoa kontsolidatutako elementu batzuk eta kontsolidatu gabeko beste batzuk osatzen dute. Azken hauen barruan, batzuk kontsolidagarriak dira, eta beste batzuk ez. Garapen profesionaleko sistemek kontsolidatutako elementuak kontsolidatzen joateko aukera ematen dute, normalean funtzioei lotutako lanpostuari edo erantzukizunari lotuta daudenak. Jarduera oker baten kasuan, kontsolidatzeaz gain lanpostua ere gal daiteke. Beraz, garapenaren karrera galduko litzateke, eta ondorioz ordainketa maila kuantitatiboki eta kualitatiboki hobetzeko aukera.
- Jarduera okerra barne arauak haustean badatza, kontsolidatutako ordainsari finkoa murriztea ekar dezake, tipifikatutako arau hauste kasuetan. Kasu horretan, kontrol prozedura zehatzak existitzen dira.

Ordainketa aldagarriaren gaineko efektuak.

- Bere deskribapenari jarraiki, ordainketa hau Erakundearen finantza izaera duten eta finantza izaerarik ez duten adierazle nagusien urteko helburuak betetzeari zuzenean lotuta dago, eta gehieneko eta gutxienekoen eskala batean edo aitorten atalasean mugitzen da, ezarritako helburuak lortzeko mailaren arabera.
- Ordainketa aldagarria, zentzu zuhurrean, bereziki identifikatutako kolektiboari dagokionez, arrisku adierazleen garapenaren baldintzapean egongo da ere, kapital oinarri sendo bat, Erakundearen kaudimena eta epe luzerako jasangarritasuna mantentzea gordetzeko.

- Horrela, Erakundearen ordainketa aldagarriaren sortzapen lorpena, Erakundeak maila globalean dituen emaitzek, eredu bakoitzaren helburu kuantitatibo zehatzetan gutxieneko bat lortzeak (unitateari, ekipoari edo banakako mailan esleitutakoak) eta aldeko banakako ebaluazio kuantitatibo bat lortzeak baldintzatzen dute. Modu honetan, urteko jarduera oker edo negatibo batek jaso beharreko kantitatearen zati bateko egokitzapen bat ekar dezake, edo ekitaldia bitartean ordainketa aldagarria kobratzeko edozein aukera erabat ezabatu ere. Agindutako funtziorako eskatutakoarekin bat ez datozen jardueren kasuan, lanpostua eta hari lotutako ordainketa aldagarriko sistemetan parte hartzeko aukera gal daiteke.

2.- Expost ebaluazioa.

Ordainketa aldagarriaren gaineko efektuak.

- Identifikatutako kolektiboari dagokionez, Erakundearen araudi markoan eta barne ordainketa politikan aurreikusitako proportzionaltasun printzipioa ezarriz, kasu batzuetan ordainketa aldagarriaren likidazioa baldintzatzen duen expositu ebaluazio bat existitzen da. Muga hauek lehenengo zuzendaritza ildoan eragina dute.
- Expost ebaluazioa ebaluazio exantearen ebaluazio osagarria da, urte anitzeko epe batean, Erakundearen ziklo ekonomikoarekin eta atzera begirako ikuspegi batekin bat, ordainketa aldagarriaren ematearen unean egindako emaitza eta arriskuen balorazioak sartzeko aukera ematen duena. Modu honetan, hasiera batean emandako kantitateen likidazio edota kontsolidazioan eragina dauka, eta Erakunde osoaren egoeraren arabera jasangarria ez bada, horren emaitzen, negozioaren unitatearen edo zuzendariaren arabera justifikatzen ez bada murriztu edo ezabatu daitezkeela.
- Aurrekoarekin bat, eta proportzionaltasun printzipioa ezarriz, emandako ordainketa aldagarriaren % 100 murriztu daiteke expositu *malus* klausulen bidez (edo geroratutako eta likidatzeke dauden ordainketa aldagarriko kopuruak murriztearenak) edo *clawback* klausulen bidez (dagoeneko ordaindu diren ordainketa aldagarriko kopuruak errekupearenenak).
- Expost ebaluazio hau gobernu organoek egiten dute, bereziki Administrazio Kontseiluak, Ordainketen Batzordeak txostena igorri ondoren, tipifikatutako adierazle batzuetan oinarrituz, araudi markoaren, Erakundearen barne ordainketa politikaren eta banakako kontratuetan aurreikusitako xedapenen arabera.